



# Gune babestuak

Eneko Imaz Amiano

Elhuyar



E. IMAZ AMIANO

Aurten ere iritsi da ekainaren 5a eta, beraz, nazioarteko ingurugiro-eguna. Egun horren inguruan hainbat ekitaldi, asmo oneko adierazpen, jarduera, protesta eta abar egiten da. Eta guztiak dira

beharrezko ingurugiroa zaindu eta babestu nahi badugu; ez baita lan makala. Izan ere, erraza izan daiteke hitz eta ekintza polit eta ikusgarriak egitea, baina ez da batere erraza jendearen pentsatzeko eta jokatzeko modua aldatzea; ez da erraza natura agortezina dela eta bertan dagoen guztia ustiatu genezakeela burutik kentzea; ez da erraza bizimoduari lotu dizkiogun hainbat erosotasuni uko egitea; beti ez da erraza, gure bizi-kalitatea murriztu gabe, ingurugiroari kalte gutxiago egingo dioten ohitura eta baliabide berriak erabiltzea; ez da erraza betiko produkzio-sistemen ordezkioak bilatu eta bilatzeko baliabideak eskura izatea...

Eta hala ere, hori guztia egin beharrekoa dugu. Beharrezkoa dugu ingurugiro-urtea izatea eta horretarako neurriak hartzen jarraitzea, baita natur gune babestuak sortzea ere helburu hori betetzeko balio badute. Egoki kudeatuta, ingurune eta espezie jakinak babesteko eta jendea kontzientziatzeko balio baitezakete, besteak beste.

Baina babesteko beharra ez da Natura 'gaixoa' suntsitzeko arriskuan dagoelako sortzen (iraungo du era batera edo bestera), baizik eta inguruan dugun Natura zoragarria delako eta guztiok dugulako horretaz gozatzeko eskubidea. Baita gure ongizaterako ezinbestekoa delako ere, elikagaiak, ura eta airea bertatik hartzen ditugulako eta horiek egoera onean ez badaude guri kalte egiten digutelako.

Ez al da nahiko arrazoi? Beraz, izan gaitezen geurekoiak!

# Munduko gune babestuak

Eider Carton Virto

Elhuyar

**Natura eta Baliabide Naturalak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren (NKNB) arabera, gune babestua biodibertsitatea zein baliabide natural edo kulturalak babesteko, berariaz izendatutako lur edo itsas gunea da, lege ofizialen bidez edo atxikimenduz kudeatzen dena. XX. mendean ia herrialde guztiek izendatu dituzte gune babestuak edo, gutxienez, haiek izendatzeko planak egin dituzte. Hala ere, lurraren % 8,83 besterik ez dago babestua.**

EGUN 30.350 GUNE BABESTU DAUDE MUNDUAN, guztira 13.232.275 km<sup>2</sup>. Beste hitz batzuetan esanda, lurrazalaren % 8,83, hau da, gutxi gorabehera Txina eta India batera bezainbeste, beti ere NKNB erakundeak jasotako datuen arabera eta zenbait kasutan gune babestu horien barruan itsaso-zatiak ere zenbatu direla kontuan hartuta. Horiez gain, beste 30.000 gune daude gune babestuen estatusa guztiz betetzen ez dutenak.



ARTXIBOKOA

## Definizio-arazoak

Basa bizitza babesteko, ekosistema eta espezieak gordetzeko, ikerketa zientifikoa egiteko, turismorako, heziketarako, ekosistema naturalak era jasangarrian ustiatzeko, ezaugarri kulturalak gordetzeko... hainbat arrazoi eta helbururekin izendatzen eta kudeatzen dira gune babestuak. Izan ere, gune babestua ez da halabarrez gizakiagandik isolatutako gune naturala. Herrialde ez-industrializatuetan, adibidez, nazioarteko turismoa erakartzeko izendatu ziren natur parke gehienak.

Bakoitzak bere irizpideak zituelako, hasieratik egon dira arazoak gune babestuen izendatu eta sailkatzeko. Horren adibide dira haiek deskribatzeko dauden 1.388 terminoak, baina ez gara hemen banan-banan guztiak aipatzen hasiko. Adibide klasikoa parke nazionalarena da. Amerikan, Afrikan, Hegoaldeko eta Ekialdeko Asian, Australian eta Zeelanda Berrian parke nazionalak gune handi eta naturalak dira eta Europako asko, aldiz, gizakia eta naturaren elkarrekintzaren baitan eboluzionatu duten guneak. Ingalaterra eta Galesko guztiak, Alemaniako gehienak eta Frantziako Cevennes zein Hungariako Danubio-Drava parke nazionalak era horretakoak dira.

*“gune babestuek ahal bezain handiak izan behar dute, eskualdearen ezaugarriak, komunitate ekologikoak eta espezieak hobeto babesteko”*

1948an, Nazio Batuek sustaturik, Natura eta Baliabide Naturalak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna (NKNB) sortu zen eta orduz geroztik erakunde hori arduratzen da gune babestuen inguruko araudi eta ildo nagusiak zehazteaz. NKNB 78 estatuk, gobernuetako 112 erakundek eta gobernuz kanpoko 735 erakundek osatzen dute eta 181 herrialdeetako 10.000 zientzialarik egiten dute bertan lan. NKNBk ereduak ezarri eta herrialde bakoitzak bere berezitasunetara egokitzen ditu.

Helburuen baitan NKNBk sei kategoria bereizten ditu: erreserba zientifikoak eta natur erreserba integralak, parke nazionalak, natur monumentuak, natur erreserba zuzenduak, paisaia babestuenak eta ballagaien erreserbak. Edozein kasutan ere, kategoria horiek ez dira hierarkikoki sailkatu behar. Azken finean, kategoria guztiak dira biodibertsitatea babestu eta kontserbatzeko garrantzitsuak.

### Ekosistema zatikatuak

Azken urteetan, jatorrizko egoeratik gertu dauden hainbat natur gune bere horretan mantentzea eta babestea helburu duten babes-politikak onartu dira herrialde gehienetan. Ez da ordea nolana ere egiteko lana, babestuta ere, mehatxuen zerrenda amaiezina baita: poluzioa eta klima-aldaketa, turismo axolagabea, azpiegiturarako eta nekazaritzarako lur gehiago beharra, populazioa handitzea, garapen basatia, gerrak, utzikeria... Naturaren lepotik garatu baita gure gizarte modernoa eta ez da erraza orain horri buelta ematea.

Hasteko, mundua jendez gainezka dago. 12 urtean 5.000 milioi izatetik 6.000 milioi izatera pasatu gara. Lurra ez da handitu, baina naturarekiko presioa bai eta kontserbaziorako teoriak diotena betetzea zaila da. Haien arabera gune babestuek ahal bezain handiak izan behar dute, tamainaren baitan eskualdearen ezaugarriak mantentzea, komunitate ekologikoen presentzia nabarmentzea eta espezieen iraungitzea eragozteko errazagoa delako. Teorian behintzat, zenbat eta handiagoak izan, orduan eta hobeto arin dezakete kanpoko presioa. Hala ere, munduko gune babestuen % 59 ez da 1.000 hektareara iristen eta horiek babestutako azaleraren % 0,2 besterik ez dute osatzen. Aldiz, gune babestuen % 6ari babestutako azaleraren % 87 dagokio, hau da, 11,56 milioi km<sup>2</sup>. ➔



1872an izendatua, Estatu Batuetako Yellowstoneko Parke Nazionala munduko zaharrena da. Turismoa, mehatxak, petrolioaren industria eta parkea kudeatzeko aurrekontuaren murrizketa mehatxu larria dira parkearentzat.





K. NUÑEZ BETELU

Estatu Batuetako Yosemiteko Parke Nazionala (1890): Bridelveil urjauziak.

Gainerako gehien tamaina txikia ikusirik, babestutako guneen sareak sortu dira, ahaleginak bateratzeko eta gune batetik besterako korridore naturalak prestatzeko. Korridoreen bidez, habitaten arteko kontaktu fisikoa bermatu eta ekosistemak zatikatzea mugatu nahi da, landareen eta animalien migrazioa errazteko. Gainera, zenbait ikerketaren arabera, munduko natur erreserba handien bostenak paisaia erabat desberdina izan dezake 30 urte barru klima-aldaketaren erruz.

Bizilekuaren eraldaketa horrek espezieen iraupena arriskuan jar dezake eta korridoreak konponbidea izan daitezke. Europan "erreserben sareak" egin nahi dira habitat batetik bestera higitzen diren animalientzat eta Israelen herrialde guztia zeharkatzen duten linea elektrikoaren lur-sailak korridore bezala erabiltzea iradoki dute. Ideia horietako oso gutxi igaro dira, ordea, pape-retik errealitatera. Izan ere, gune babestuak zaindu behar dituztenek berehalakotasun handiagoko arazok dituzte eta klimaren aldaketa zeruertzean oso urrun agertzen den erronka da.

Estatu Batuetan, adibidez, arazo larriak dituzte turismoarekin. Parke nazionalen kultura ondo sustraitu da bertako gizartean eta geroz eta jende gehiago hurbil-

### **Gune babestuen sailkapen orokorra**

- **Natur erreserba integralak** (babestutako azalera osoaren % 7) eta Gune Basatiak (% 7): helburu nagusia komunitateak eta espezieak zaintzea da eta betiere prozesu naturaletan gizakiaren parte-hartze zuzena erabat baztertzen da. Gainera, eskualde basation helburu nagusia zientifikoa denez, giza presentzia jarduerak horretara mugatuko da. Gune Basatietan herri indigenen jarduerak ez dira debekatuko.
- **Parke nazionalak** (% 30): kategoria honen kudeaketa-helburua, nazio edo nazioarteko ekosistema edo paraje erakusgarriak gorde dituzten paraje naturalak babestea da, horietan hezkuntza, aisialdia eta zeregin zientifikoen inguruko jarduerak aurrera eramateko.
- **Natur monumentuak** (% 1): kategoria honen barruan gizakiak ia aldatu ez dituen, arriskuan dauden edota apartak diren txoko naturalak (formazio geologikoak, gune natural bitxiak...) gorde eta babesten dira.
- \* **Natur erreserba zuzenduak** (% 19): garrantzi nazionalen komunitate biotikoak eta espezieak babesteko eta beharrezko baldintza naturalak gordetzeko izendatutako guneak dira eta, helburuak erdiesteko beharrezkoa izatekotan, gizakiaren parte-

-hartze zuzena zilegi da. Gune horietako jarduera bakarrak ikerketa zientifikoa, hezkuntza eta etengabeko zainketa izango dira.

- **Paisaia babestuak** (% 8): alde batetik, eskualdeko bizimodu eta jarduerak ekonomiko normalaren baitan gauzatzen diren gizakiaren eta ingurunearen arteko harreman orekatua eta, bestetik, aisialdirako eta turismoarako erakusten duten potentziala dira kategoria honetako guneen ezaugarri nagusiak.
- **Baliagaien erreserbak** (% 27): etorkizunean erabilgarriak izango diren baliagaiak gorde eta babestuko dira. Kategoria honetako guneak, oro har, zabalak, bakartuak eta populatu gabekoak dira. Babeskuntza, ikerketa eta planifikazioa izango dira premiazko zereginak.

### **Bestelako gune babestuak**

- **Erreserba antropologikoak**: kategoria honetan sailkatzen diren guneetan ingurugiroarekin era harmoniatsuan bizi diren gizarteak euren bizimoduarekin jarrai dezaten, teknologia modernoaren eraginetik salbu, lortu nahi da. Dibertsitate genetikoari eustea eta giza eboluzioaren inguruko gorabeherak ezagutu ahal izatea

aitpatzen dira erreserba hauen zergatien artean.

- **Erabilpen Anizkoitzerako Aldeak**: hainbat sektorek (basogintza, ura, belardiak, animaliak, aisialdia) ustiatzeko aproposak izateaz gain, baso eta mendiz osaturiko eskualde zabalak dira eta, neurri batean behintzat, gizakiak koloniza ditzake, betiere ustiaketa jasagarria egin ez.
- **Biosfera-erreserbak**: UNESCO erakundeak izendatzen ditu eta biosfera-erreserben nazioarteko sarea izendatzea du helburu. Kategoria honetako nazioarteko guneak, alde natural klasikoaz gain, gizakiak eraldatutako ekosistema egonkorrez zein degradazioa jasan duten ekosistemez daude osatuak eta hurrengo ezaugarrietako bat izaten dute beti: komunitate naturalen adibide ikusgarriak dira, alde bitxi edo aparta dute, paisaia egonkorak dira edo degradatutako ekosistemak dira.
- **Mundu-ondareko leku naturalak**: munduko ondare bihurtuko diren lekuen bitartez Lurraren historiaren urratsak, egungo prozesu geologikoak, eboluzio biologikoa, gizakiaren eta bere inguruaren arteko elkarrekintza, edota landare edo animalia-komunitate bitxiak dituzten habitaten lagin edo adibide bikainak babestu nahi dira.

(UEUren, *Naturaren kontserbazioa, nora goaz?* liburutik egokituta)

tzen da haiek eskainitako paisaiak eta aisiaz gozatze-ko asmoz. Urtero 270 milioi bisitari hartzen dituzte eta dirua uzten badute ere, baliabide naturalak hondatu egiten dituzte. Hori saihesteko, giza jarduerak mugatu eta arautu egin behar dira, azken finean parkeak ez direlako espreski turismorako egin. Ala bai?

Babestutako guneen bidez, naturatik urrundu den gizarteari haren balioak erakusten zaizkio, baina argi dago naturaren kontserbazioa eta turismoa uztartzea zaila dela. Orain dela gutxi jakin da pandaren habitata polikiago suntsitzen ari dela babesturik ez dauden guneeetan pandaren habitata babesteko berariaz sortutako Txinako Wolong Natur Erreserban baino, eta suntsiketaren abiadura handitu egin dela erreserba izendatu zenetik. Pandak eta gizakiak habitat bera maitate dute eta, ikertzaileen ustez, hor dago suntsiketaren gakoa. Izan ere, 25 urtean erreserbako giza populazioa % 70 hazi da, gutxiengo etnikoa direnez ume bat baino gehiago izan ditzaketelako eta parke izendatu zenetik egoera ekonomikoak hobera egin duelako, erreserbak turismoa ekarri baitu eta turismoak dirua.

### Bakerako erreserbak

Mugak eta gatazkak ere mehatxu handia dira. Babestutako azaleraren % 10, gutxi gorabehera, estatuaren artean dago eta mugaz gaindiko kooperazioa eskatzen du. NKNBK garrantzi berezia ematen die, politikoki banatutako ekosistemak zaintzeko bidea izateaz gain, nazioarteko kooperazioa bultzatzen dutelako maila politiko eta zientifikoan. Ildo horretatik, NKNBK "bakerako parkeak" deituriko proiektua du. Batetik, txirotasuna eta gataz-



ARTXIBOKOA

Virunga mendietan gorilen bizilekua arriskuan dago.

kak larriak diren herrialdeetan nekeza delako gunee babestuen gaineko politikarik egitea eta, bestetik, mugaz gaindiko gunee babestuak eskualde askotako egoera politiko, ekonomiko eta sozial penagarria gainditzten hasteko tresna izan daitezkeela uste dutelako.

*“gune babestua  
eta garapen  
jasangarria uztartzea  
nahitaezkoa da,  
bereziki herrialde  
txiroetan”*

Ruanda, Uganda eta Kongo arteko mugan dauden Virunga mendietan, esaterako, mugek eta gatazkek bat egiten dute. Estatu bakoitzak parke nazional gisa kudeatzen du bakoitzari dagokion zatia, baina barruan bizi diren gorilek ez dute herrialdeen arteko muga fisikorik ezagutzen. Oso gunee turistikoa denez, diru-iturri bikaina izan zen Ruandako gerra zibila hasi zen arte. Orduetik, Virunga mendietarantz ihes egin zuten errefuxiatuek basoaren 150 km<sup>2</sup> suntsitu dituzte eta animaliak bereizketarik gabe ehizatu dituzte. Parkeko azpiegiturak suntsitu egin ziren eta ia zaintzarik gabe geratu zen 7 urtez. Gainera, jarduera militarra handia izan zen parkean. Egoera ez da asko hobetu Ruandan eta Virunga mendiek presio demografiko handia jasaten dute oraindik, ez baita erraza oinarritzkoena ere falta duen jendeari parkea bere horretan mantendu behar dela esatea.

Halako egoeran gunee babestua eta garapen jasangarria uztartzea nahitaezkoa da. Gizartea naturaren lepo garatzea zilegi ez den bezala, naturaren kontserbazioa giza garapenetik banatzea ere zilegi ez delako. ■



E. IMAZ AMIANO


Ordesako Parke Nazionala. Turismoaren gorakada nabarmena argi erakusten du argazki honek.

# Gune babestuak Euskal Herri

Joana Mendiburu Garaiar

Elhuyar

Euskal Herrian 1980ko hamarkadan hasi ziren gune babestuak izendatzen eta, jadanik, gatazkak eta zailtasunak gaituzte, era guztietako guneak aurki daitezke. Baina, azken hamarkadan puri-purian egon ondoren, kezka bat ari da nagusitzen. Ez al da gune babestuen eta babestu gabekoaren artean desoreka handia sortzen ari?



## NATUR PARKEAK

<b>Bertiz:</b>	1984-04-28 2.040 ha
<b>Urkiola:</b>	1989-12-29 5.958 ha jabego publikoa % 31,9 jabego pribatua % 68,1
<b>Valderejo:</b>	1992-01-14 3.496 ha jabego publikoa % 83 jabego pribatua % 17
<b>Aralar:</b>	1994-04-26 10.971 ha jabego publikoa % 57 jabego pribatua % 43
<b>Gorbeia:</b>	1994-06-21 20.016 ha jabego publikoa % 78 jabego pribatua % 22
<b>Aiako Harria:</b>	1995-04-11 6.913 ha jabego publikoa % 79,5 jabego pribatua % 20,5

<b>Urbasa eta Andia:</b>	1997-03-12 21.408 ha
<b>Izkiz:</b>	1998-05-31 9.081 ha jabego publikoa % 97 jabego pribatua % 3
<b>Pagoeta:</b>	1998-09-29 1.335 ha jabego publikoa % 97 jabego pribatua % 3
<b>Bardeak:</b>	1999-12-27 39.263 ha

## ZUHAITZ APARTEKOAK

- 1 Muxikako artea
- 2 Artzetalesko haritz kanduduna eta ametz arrun hibridoa
- 3 Artziniegako artea
- 4 Altubeko haritz kanduduna
- 5 Izarrako hagina
- 6 Angostoko artea
- 7 Lantaroneko pinazi-pinua
- 8 Antoñanako hagina
- 9 Antoñanako ezkia
- 10 Santa Teodosiako lizarra
- 11 Gasteizko sekuoia





EUSKAL HERRIKO GUNE BABESTUEN HISTORIA ez da oso luzea, baina azken hamarkadan gune horien kopuruak gorakada handia izan du. 1984an Urdaibai biosfera-erreserba izendatu zutenetik, natur gune babestuen sareari izen guztietako guneak gehitu zaizkio. Hala ere, gehien aipatzen den babes eta kontserbaziorako figura, natur parkearena da eta ez da harritzekoa, 1989 ezkerotik hainbat eredu ditugulako: Urkiola (1989), Valderejo (1992), Gorbeia (1994), Aiako Harria (1995), Bardeak (1999)...

Azalera txikiagoa hartzen duten kontserbaziorako figuren adibideak ere ez zaizkigu falta: natur erreserbak (Irunberriko arroila), erreserba integralak (Irati), hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) (Biasteriko aintzirak), biotopo babestuak (Leitzarain) eta abar (ikus mapa). Guztiak natur guneen babes-politikaren alde desberdinak baino ez dira: izen desberdinak eta helburu bat, naturaren kontserbazioa.



Aralar 1994an izendatu zuten natur parke. Argazkian Aralarko Malloak.

Bestalde, Euskal Herrian hiru errealitate administratiboren ondorioz (Pirinio Atlantikoen zati den Iparraldea, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa), gune babestuak izendatzeko administrazioen inplikazio-mailen desoreka nabaria da. Ipar Euskal Herrian esaterako, administrazioaren eta hainbat eragileren partetik traba handiak topatzen dituzte. Alde

## ***Iparraldean natur gune babestu gutxi eta oztopoak ugari***



J. MENDIBURU

ARLOT Pascal Akitaniako Natur Guneen Kontserbaziorako Erakundeko teknikaria.

### ***Zer egin behar da natur gune babestu bat sortzeko?***

Natur gune babestuak izendatzeko gaitasun beharrezko etapak konplexuak eta oso luzeak dira, oniritzia eman behar duten

pertsonen eta erakundeen zerranda luzea delako (auzapezak, departamenduko kontseilu nagusiko hautetsiak, Akitaniako kontseiluko kideak, Pirineo Atlantikoetako departamenduko prefeta eta ingurugiro-ministerioa) eta natur gune babestu izendatzeak hainbat jarduera arautzea dakarrelako. Adibidez, gune bat natur erreserba izendatzeko 5-6 urte igaro behar dute.

### ***Zein dira Hegoaldeko lanarekin alderatuta ikusten dituzun desberdintasunak?***

Hemendik begiratuta, Hegoaldean natur gune babestuak sortzeko egin beharreko izapide administratiboak askoz ere errazagoak direla dirudi. Hegoaldeko eta Iparraldeko natur gune babestuen kopurua ikusi besterik ez dago hortaz oharretako. Oker ez banago, EAEn 21 natur gune babestu daude eta Nafarroan 43. Iparraldean bakarria dugu (Abadiako ingurunea, Hendaian). Alta, hemen natur

gune babestuak nahi dituzten pertsonak egon badaude.

### ***Natur gune babestuak sortzea zaila bada, zein lan egiten duzue?***

Iparraldea txikia da, baina ikuspegi biologikotik benetan aberatsa da (isurialde atlantikoko mendi hezeak, isurialde mediterraneoko mendi idorrak, arrokazko itsasertza, mendixkak, bartak). Zoritxarrez, urtetik urtera, gune askoren egoera aldatu eta aberastasuna galdu egiten dela ikusten da. Ofizialki interes ekologikoko guneak babesteko interesik ez dagoenez, jabeekin ondarea kontserbatzeko proiektuak martxan jartzea izaten da gure helburua.

Lehenik, guneen interes biologikoa definitzeko, floraren eta faunaren inbentarioak egiten dira. Aberastasunak babesteko, eremu interesgarriaren jabearekin harremanetan jarri eta hitzarmena sinatzen da; jabeak eremua zainduko du eta guk eremuaren



batetik, departamenduan bi kultura daudelako (biarresa eta euskalduna) eta, bestalde, gune babestu izendatzeak hainbat jarduera arautzea dakarrelako. Interes desberdinak (biologikoa, politikoa, pertsonala) tarteko, gune babestuak izendatzeko prozesuetan aurkariak asko izaten dira. Aipatzekoa da, adibidez, maila horretan ehiztariak duten eragina. Frantzia 1,6 milioi ehiztari daude eta hautetsiek ez dute ehizaren aurka doan ezertxo ere egin nahi izaten.

Hala ere, nabarmena izan da 15 urteetan gune babestuen kopuruak izan duen gorakada. Bidea poliki egin da, baina azkenean, batez ere Hegoaldean, lortu da gune babestuak sortzeko trabak, oztopoak eta gatazkak gainditzea. ➔

[ *“elkarlana eta kontzientziazio-maila handiagoa sustatu nahi dituzte adituek”* ]

Hainbat administrazioetan zatiua egotearen beste ondorio bat hainbeste izendapen desberdin topatzea da. Gune horien alde lan egiten dutenen helburua ekosistema bakoitzaren aberastasuna babestea eta, horiez gain, arrazoi sentimentalak eta estetikoak ere izaten dira, baina gune batzuk legeak babestutakoak dira eta beste batzuk, berriz, ez.



J. LARRANAGA

Natur guneetako ibilbideetan non-nahi topa daitezke paraje zoragarriak.

kudeaketa-plana egiten dugu, betiere gainerako eragile guztiak jakinaren gainean ezarriz. Kudeaketa horrekin diru-galerarik balu, konpentsazioa lortzen saiatzen gara. Hori lortu ezean, eremua erosten edo alokatzen saiatzeko ahaleginak egiten ditugu.

Inbentarioetan ornodunak eta ornogabeak hartzen dira aintzat;

ornodunetan, txorien, narrastien, ugaztunen eta anfibioren jarraipena egiten da eta ornogabeetan interes-taldeetako espezieak, burrunziak, tximeletak eta koleopteroak besteak beste.

Lan hori eginda, lehentasunez babestu beharreko espezieak izendatu eta bost urterako helburuak finkatzen dira. Plana oso zehatza da; urte eta garai

bakoitzean zer egingo den zehazten da. Bost urteren buruan, berriro, jarraipen zehatz bat egiten da babestu nahi ziren espezieen egoeraren bilakaera zehaztuz.

Oraingoz, Akitania osoan, kudeatzen ditugun kontserbaziorako guneak guztira 750 ha hartzen dute.

***Pozik al zaudete egiten duzuen lanarekin?***

Gure erakundea duela 11 urte sortu zen, baina serioски duela 5 urte hasi ginen lanean (bi langile hartu zirenetik). Goizegi da balorazio orokorrak egiten hasteko eta, oraingoz, urtetik urterako aldaketak neurtu besterik ez dugu egiten. Hala ere, Frantzia mailan era horretara kudeatutako gune batzuen adibideak ditugu eta benetan emaitza itxaropentsuak lortu dituzte. Batzuetan, ezusteko txarrak ere izan arren, orokorrean itxaropentsu gaude.

Hendaia eta Sokoa bitarteko itsasertza da Ipar Euskal Herrian lege babestutako gune bakarra.



E. CARTON

## “Bardeetan erabilera guztiak uztartu nahi dira”

Alejandro Urmeneta.  
Bardeetako natur parkeko  
biologoari elkarrizketa.

### ***Zein dira Bardeetako ezaugarri nagusiak?***

Bardeek 41.850 hektareako eremu handia hartzen dute eta horietatik 39.263 ha gune babestuak dira.



E. IMAZ AMIANO

Casteldetierra. Hareharri-geruzak buztin-higadura zenbat galaraz dezakeen erakusten duen adibide garbia.

1999an natur parke izendatu zen, Bardeak ikuspuntu ekologikotik balio garrantzitsuak eta ingurukoetatik desberdinak dituen gunea direlako. Nahiko egoera onean dauden Iberiar penintsularen eta Ebroren erdialdeko haranetako estepen adibide ona da. Bestalde, natur parke izendatua izan arren, 42.000 ha horietatik % 54 inguru landuta daude. Hala ere, natura eta nekazaritza elkarrekin uztartzeko helburuarekin, partzelen % 90 baino gehiagotan, zereala urtero erein beharrean bi urtetik behin bakarrik ereiten da. Beste jarduera nagusia behi-hazkuntza estentsiboa da. Hain zuzen ere, natura zainduz giza jarduerak garatzeko egiten den lana ikusirik,

maiatzean, UNESCOk biosfera-erreserba titulua eman zion.

Azkenik, aipatu beharreko ezaugarria Bardeetako kudeaketa historiko, juridiko eta administratibo berezia da. Bardeak Nafarroako erregeen eskuetatik Gaztelako erregearen eskuetara pasa ziren eta, 1705. urtean, erregeak lurraren erabilerearen eskubideak inguruetako herriei saldu zizkien. Orduz geroztik, eskusiboki eta betiko, Bardeetako erabilera 19 herrik osatzen duten Bardeetako komunitatea deritzonaren esku dago.

### ***Zer babestu nahi da zehazki izendapen horiekin?***

Bardeetako eremuaren parte handi bat natur gunea da eta natur parkearen bidez, estepa horietako landaretza babestu nahi da. Izan ere, estepetan dauden landare-espezie gehienak Europako sailkapenean lehentasunezkoak dira. Estepako fauna eta harrapari-populazioak ere babestu nahi dira.

Biosfera-erreserba titulua, berriz, balio naturalak eta gizakiaren beharrak eta erabilera kontuan hartuz ematen da. Erabilera jasangarriak dituzten eta beste gune batzuentzat adibide gisa erabil daitezkeen guneei ematen zaie.



E. IMAZ AMIANO

Landaredia desagertzean, higadura-forma bitxiak sortzen dira. Argazkian Pisuerra (Barde Zuria).

### ***Zein da orain arte egin duzuen lana?***

Gure helburuetako bat erabilera guztiak aldi berean eta era egokian uztartu ahal izatea da. Lehen aipatutako nekazaritzaz gain, ehiza, arrantza, turismoa, energia eolikoa eta eguzki-energia dira aipagarrienak. 1951n martxan jarri zen tiro-eremua ere hor dago eta, maila horretan desadostasun handiak badaude ere, estatuaren esku dago tiro-eremuaren etorkizuna.

Bestalde, 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadaren hasieran, eta are gehiago orain babes-figura berriekin, gune horien eta erabilerearen kudeaketa baliabide naturalen kontserbazioa bultzatu nahi da. Kontserbazioa da hain zuzen kudeaketa zehaztuko duena. Besteak beste, Europako nekazaritza-politikaren ildotik, jarduera horrek kontserbazioa gero eta gehiago aintzat hartzea bultzatu nahi da.

Azkenik, fakultateek edo zientzia-ikerketarako goi-kontseiluak bultzatzen dituen ikerketak ahalbidetzen ditugu. Oraingoz, estatuko ikerketa-taldeak etorri dira fauna ikertzera eta aurrerentzean landaretza ere ikertzeko dutela espero dut.



A. ELOSEGI

tu duenez, informazio publikoa behar adina ez ematea izan zen beren hutsegite nagusia, baina beren akatsak hurrengo urteetan sortu diren natur parkeentzat ikasgai bihurtu direla ikusteak poztasun handia ematen dio.

“gune batzuk natur  
gune izendatzeak  
ez ditu beti nahi  
bezain emaitza onak  
ematen”

rederra errearen iturburua natur erreserba da.

## Balantzeak egiteko ordua

10-15 urteko historia egin ondoren, balorazioak egiten hasteko garaia dela dirudi, aditu bat baino gehiago gune babestu zenbait baino babes orokorragoaren eta kontzientziazio-maila handiagoaren alde agertzen baitira.

Euskal Herriko lehen natur parkea Urkiolakoa izan zen. Sorreran parte hartu zuen eta, gaur egun, parkeko zuzendari den Antonio Buesaren esanetan “zailtasun handiei aurre egin behar izan genien Urkiolako Natur Parkea sortzeko. 6 urte behar izan genituen, inguruko udalak, ENHE, Gerediaga Elkarte eta Bizkaiko Mendi Federazioa lehen bilerak egiten hasi eta Urkiola natur parke izendatu ahal izateko. Guztia nahiko inprobisatua izan zen Euskal Herrian ez baitzegoen eredurik”. Aitor-

Gune babestuen helburuetako bat ekosistemak zainduz galtzeko arriskuan dauden espezieak berreskuratzea da. Maila horretan, ingurune hezeetan eskaintzen den babesak, adibidez, emaitza positiboak ematen dituela nabaria da. Adibidez, Txingudin 1991n plan berezia martxan jarri eta Plaiaundi txikia 1998an inauguratu zutenetik, hegazti migratzaileen egonaldiak luzatu eta habia-egileen kopurua emendatu egin da. Gaur egun, 10-15 espezie ibiltzen dira inguru horietan.

Hala ere, gune babestuen inguruan kezka berriak sortzen ari dira eta askok zalantzan jartzen dute gune horien kudeaketa eta, kasu batzuetan, baita beharra ere. Mundu mailan topatzen diren arazo berak azaltzen ari dira Euskal Herrian bertan: turisten eragina, gune babestuen eta babestu gabekoen arteko desoreka, gune babestuen arteko lotura falta... ➔

NAZIOARTEKOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biosfera-erreserba (UNESCOk izendatuak)</li> <li>• Nazioarteko garrantziko hezegunea (Ramsar-eko Hitzarmenak ezarriak)</li> </ul>	
EUROPAKO BATASUNEKOAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hegaztientzako babes bereziko eremua</li> <li>• Kontserbazio bereziko eremua</li> </ul>	
ESPAINIAKOAK	FRANTZIAKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parke nazionala</li> <li>• Natur erreserba</li> <li>• Natur monumentua</li> <li>• Paisaia babestua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parke nazionala</li> <li>• Natur parke erregionala</li> <li>• Baso-erreserba biologikoa</li> <li>• Natur erreserba</li> <li>• Borondatezko natur erreserba</li> <li>• Interes ekologiko, faunistiko eta floristikoko eremu naturala</li> <li>• Itsasertaren eta aintzira-bazterren kontserbaziorako gunea</li> </ul>
NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKOAK	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erreserba integrala</li> <li>• Natur erreserba</li> <li>• Lekune naturala</li> <li>• Natur monumentua</li> <li>• Natur parkea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Natur parkea</li> <li>• Biotopo babestua</li> <li>• Zuhaitz apartekoa</li> </ul>

Natur gune babestuen eskema eremu geografikoaren arabera. Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Hiztegi Entziklopedikotik hartutako datuak.



## “Urdaibain garapen jasangarria bultzatu nahi da”



J. MENDIBURU

Xabier Arana Urdaibaiko Patronatuko kidea.

### **Urdaibai Euskal Herriko eremu babestu zaharrena da. Noiz eta nork bultzatuta hasi zen Urdaibai biosfera-erreserba izendatzeko prozesua?**

70eko hamarkadaren amaieran, Urdaibai asfaltatu eta erabat deuseztatuko zuten pare bat proiektu agertu ziren eta, hori ikusirik, 80ko hamarkadaren hasieran, Eusko Jaurlaritzak galdetuta, Aranzadik hemengo aberastasun naturala eta egoera soziologikoa aintzat hartuz ikerketa mardula egin zuen.

Ikerketa horren emaitza nagusia bikoitza izan zen. Alde batetik, Urdaibairen natur ondarea babesteko, itsasadarrera mugatu gabe, arroa osoa kudeatu beharra nabarmendu zen. Bestalde, eskualdeko nortasuna ez galtzeko, jarduerak mantendu behar zirela –industria, nekazaritza, basogintza, etab.– ikusi zen. Oreka hori lortzeko, onena Urdaibai biosfera erreserba izendatzea zela pentsatu zen.

### **Noren esku dago Urdaibairen kudeaketa?**

Urdaibai Biosfera Erreserba Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailaren ardura da. Beste hainbat erakundek ere parte hartzen dute eguneroko jardueretan. Biosfera Erreserba patronatuak kudeatzen du, baina lurraldea denon artean

landu behar dugu. Beste erakunde publikoek, elkarteek, gizarte-eragileek, jabe partikularrek... badute zeresana.

### **Nola finkatzen dira helburuak?**

Urdaibairen kudeaketan gabiltzanok bi helburu nagusi ditugu. Alde batetik, lurraldea bere osotasunean babestea eta, bestetik, eskualdean gizakiaren etorkizuna bermatzea. Egia da populazioa ez dela galtzen, baina landa-eremua krisian egon da. Herri txikiak beren bizia mantendu behar dute eta giza jarduera guztiak bermatu behar dira. Adibidez, baserritarrak oso kinka larrian daude eta presio handia dute, hirigintzakoa eta turistikoa.

Helburu horiek lortzeko, hiru arlotan banatzen ditugu gure indarrak: lurralde-antolamendua, egitarau sozioekonomikoa, eta hezkuntza eta informazioa.

### **Zein arazori egin behar izaten diozue aurre?**

Urdaibaiko proiektua epe luzekoa da, Urdaibai ez delako natur erreserba eta, beraz, bere bilakaera izango duelako. Hemen garapen jasangarria lortu nahi da eta, horretarako, giza

jarduerentzat ezinbestekoak diren ingurugiro-baliabideak –ura, lurzorua, airea, hirietako bizi-kalitatea...– babestu behar ditugu. Eskualdeko biztanle guztiak proiektua ez bereganatzea izan ohi da arazoa sarritan. Itsasadarreko paisaia zoragarri horretan gelditu gabe, herrietara hobeto heltzea da gure erronketako bat.

### **Helburuak lortzen ari zarete?**

Nik baietz esango nuke. Eskualdeko jendeak orain hobeto ezagutzen du Urdaibai, nahiz eta beti dagoen iritzi kritikoren bat. Batzuek zorrotzegiak garela diote eta besteek, berriz, alderantziz. Baina pozik dagoen jendea ere gero eta gehiago da. Bertako taldeen inplikazioa ere azken bi urte hauetan handiagoa da, Galtzagorri plataforma sortu zenetik.

Administrazioen arteko lotura normalizatuagoa dago eta hori ere oso positiboa da. Hasieran, gatazka handiak egon ziren eta bazirudien proiektua bertan behera utzi beharko zela. Zorionez, desadostasunak gainditzen joan gara.



URDAIBAICO PATRONATUA

Urdaibai 1984an izendatu zuten biosfera-erreserba, hortaz Euskal Herriko gune babestu zaharrena da.



A. ELOSEGI

Antzarak Biasteriko Prado aintzira gainean. Biasteriko aintzirak hegaztientzako babesgune bereziak (HBB) dira.

Bisitari-kopuru handiagatik balio biologikoa galdu duten natur parkeen adibide ona Valderejo da. Bertako fauna ezagutzen dutenen arabera, 1992an natur parke izendatu aurretik, Valderejo arrano beltzaren ehiza-lekua zen, baina, zoritxarrez, jadanik ez da hala hegaztirik ikusteko ia aukerarik izaten.

Beste zenbait eremu interesgarritan, berriz, gune babestuen izendapena zurrumurru hutsean gelditzen da (onerako edo txarrerako). Adibidez, Aizkorri-Elgea natur parke izendatzeko zurrumurrua egon zen, baina ez dirudi gauzatuko denik. Izan ere, geroztik parke eoliko egin da eta, beraz, natur parke izendatzen bada ere, mugak parke eolikoari doitu beharko zaizkio, garai batean Mañariko harrobiengatik Urkiolako Parkean gertatu zen bezala.

Ez da erraza gune babestu horien beharra zenbaterainokoa den esatea eta ezadostasun gehienak izendapenen ingurukoak dira. Hala ere, adituak elkarlana eta gune babestuen arteko koordinazioa sustatzearen alde ageri dira.


Alejandro Urmeneta Bardeetako natur parkeko biologoaren iritziz, "arazoa da munduko mapan orban bakar-tu batzuk bakarrik babesten direla eta beste lekuetan, berriz, garapenak aurrera egiten duela, maiz inongo kontrolik gabe. Horrela, poliki-poliki, orban horiek behar luketen koordinazioa eta harremana galdu egiten dute eta horrek etorkizunari begira okerreko bidea hartzen ari garela frogatzen du. Merezi duten guneek babes han-

diagoa izatea ongi dago, baina gizakiaren jarduerak leku guztietan neurtu beharko lirateke".

Xabier Arana, Urdaibai Biosfera Erreserbako arduradunaren arabera ere, "egia da Euskal Herri mailan natur guneen azalera asko handitu dela, baina gero gainerakoa hormigoia eta pinudiekin jateko arrisku handia dago.

*"naturaren  
kontserbaziorako  
kontzientziazio-  
maila handia  
beharrezkoa da"*

Lurralde-antolamendua egin behar da eta naturaren kontserbazioa bermatzeko administrazioek plan indartsuak izan behar dituzte".

Azkenik, Mikel Etxaniz Plaiaundiko biologoaren iritziz, "plan bereziak egitea metodo ona da, baina bultzadaxo batzuk behar izaten ditu. Bestalde, positiboa litzateke itsasaldeko gune guztien sarea sortu eta elkarlana sustatzea". 

# Gune babestuak, baina ez hain babestuak



J. MENDIBURU

Urkiolako Parkearen muga dagoen harrobia.



J. MENDIBURU

Busturiako hondartzara isurtzen den ur zikina. Arazo administratiboak direla medio, oraindik ez dago Urdaibaiko ur zikin guztiak garbitzeko araztegarik.

Bardeak 1999an natur parke eta 2001ean biosfera-erreserba izendatu arren, tiro-eremua dagoen luraren alokairu-epea luzatu egin dio Bardeetako komunitateak Barne Ministerioari berriro ere.



EUSKALDUNON EGUNKARIA



E. CARTON

Zarata handia ateratzeaz gain, inguruko paisaia erabat apurtzen duen Aiako Harriko zutoin elektrikoak.



J. MENDIBURU

Urkiolako Natur Parkean bertan kokatua dagoen gasolina-zerbitzugunea. Orain itxita dago, isurketa baten ondoren ondoko erreka arrain guztiak hil eta gero.



# Itsasoa ere zaindu behar

Guillermo Roa Zubia

Elhuyar



ARTIBOYOKA

**Lurraren azalaren % 70 ozeanoek estalita dago eta, hala ere, % 1 baino ez dago babestua. Mota guztietako trabak azaltzen dira itsasoaren kudeaketa egokia egiteko eta, gainera, 'itsasoko gune babestua' terminoak hainbat erabilera izan ditu, atera nahi izan zaion probetxuaren arabera.**

XX. MENDERA ARTE GIZAKIAK EZ DITU EKOSISTEMAK AGOR DAITEZKEEN ONDARETZAT HARTU. Oraindik ere itsasoak agortezina dirudi, baina alarma piztu da. Koralkolonien % 25 baino gehiago hondatuta dago eta

arrantza-erreserben % 70 gehiegi edo gaizki ustiatu da. Uraren poluzioa ere arazo larria da eta horrekiko sentikorrek diren espezie asko desagertzeko zorian daude. Arriskuan dauden espezieen harrapaketa ez da eten. Ondorioa argia da: itsasoa babestea ezinbestekoa da.

Dagoeneko 1.300 itsas gune babestu baino gehiago sortu dira. Handienak Groenlandiako Parke Nazionala eta Australiako Koralezko Hesi Handia dira. Lehenengoak itsaso tropikal edo subtropikaletan eta lehorretik gertu izendatu ziren. 1935ean Floridan eta 1936an Australian izendatu ziren eta handik aurrera Filipinetan, Bahametan, Mexikon eta abar. Gaur egun ere, arreta handiena eremu horiek hartzen dute, baina mundu osoan ari dira proiektu berriak abian jartzen.

## Ekosistema bihurria

Itsasoa babestea ez da erraza hainbat arrazoigatik. Lehen traba handia herrialdeetako administrazioak dira, ekosistema babesteko legediak oso poliki egokitzten ari direlako eta gehienetan lehorrekoentzat soilik diseinatu direlako. Kostaldearen ingurua babestea ez da nahikoa izaten, ozeanoen tamainak beste planteamendu zabalago bat eskatzen du.



ARTXIBOKOA

Australiako Koralezko Hesi Handiak bizidunen egitura harrigarriak ditu.

*“gune babestuak eraginkorrak izateko, ekosistema osoak hartu behar dituzte barnean”*

sarbide irekiko guneak dira eta ezin zaie hesirik jarri. Naturak ez du erraztasunik ematen, baina onartu behar da trabarik handienak beste jatorri bat dutela. Zenbait kasutan, administrazioen zentzugabekeriak ere arazoa areagotu egin du.

Biologiaren ikuspuntutik ere arazoak sortzen dira. Onartuta dago gune babestuak eraginkorrak izateko, ekosistema osoak hartu behar dituztela barnean. Baina itsasoaren muga ekologikoak finkatzea ez da erraza, faktoreen arteko eragina lehorrean baino konplexuagoa baita. Adibidez, izakiak nahiz poluitzaileak erraz garraiatzen dira korronteen bitartez eta horregatik ezinbestekoa da distantzia handiko efektuak kontuan hartzea. Itsasoko espezie asko migratzaileak dira eta korrontekin higitzen dira tenperatura egokien bila. Askotan larbak toki batean jaio eta beste batzuetan hazi eta bizi dira. Espezie horiek babestek eremu batean baino gehiagotan lan egitea eskatzen du, beraz.

Galapagoetan, esate baterako, hala gertatu da Ekuadorko Parke Nazionalen Zerbitzuaren eta Arrantza Sailaren artean. Bien arteko lehia lotsagarria zen eta, azkenik, 1998ko lege batek ardura Parke Nazionalen Zerbitzuari eman zion.

NKNB (Natura eta Baliabide Naturalak Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna) erakundeak gune babestuak sei mailatan banatzea proposatu du (ikus 26. or.). Banaketa horrek lehorreko zein itsasoko gune babestuak sailkatzeko balio du eta ustiapenaren helburuen arabera da. Dena dela, sailkapena ez da orokorra. Erakundeak ‘itsasoko gune babestu’ esan nahi duten 140 termino baino gehiago jaso ditu. ➔

*“mundua bost eskualde*

*zoogeografikotan banatuta ageri da:*

## Ardura zaila

Itsasoko gune babestuak kudeatzean gure jakinduriaren mugarekin egiten dugu topo. Kontuan hartu behar da, ekosistema konplexuak direnez, okerreko erabaki batek ondorio larriak izan ditzakeela. Bestalde, oro har,

BIOGRAFIA



Ur beroetako arraina.

ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA

Itsasoa babesteko arrazoietakako bat koral-kolonien zaintza da.



ARTXIBOKOA

Gune babestuak izateko bete beharreko baldintzak nazio bakoitzaren legedian zehaztuta daude eta nazio-arteko araudi adosturik ez dago. Kanadan, adibidez, arrantzarako espezifikoak eslehitutako guneak izendatzen dira. Europako Batasunean, aldiz, ez. Beraz, herri guztietan baliagarria den gune babestuen helburu orokorrik ez da zehaztu. Gainera, zientzialariek egoera gehiago nahasi zuten, ikerketarako guneak ere babestea eskatu zutelako.

### Itsasoko berezitasunak

Tradizionalki, arrantza galarazita dagoen guneen ideia tropikoko arrantzaleek landu izan dute. Oso hausnarketa sinple eta argia da; eremu batzuetan arrantzarik ez egiteak harrapakina ez dela agortuko ziurta dezake. Izan ere, eremu horietan hazten diren espezieak pixkanaka ingurura hedatu ohi dira. Bertakoek eremu batzuk errespetatzen zituzten, urte osoan ez bazen ere, ugalketa oparoa izateko egokiak diren urtarotetan.

Idea berberarekin arrantzarako debekatutako esparruak asmatu dira. Eremu horiek bereziak dira gune babestuen esparruan, indigenen kudeaketaren kasuan ez bezala, arrantza askorengandik babestu beharreko guneak baitira, itsas zabalean eta urte osoan zehar. Gune horiek, NKNBaren sailkapenean, nahitaez Erreserba Integralen taldearen barruan egon behar dute (beste edozein sailkapen gutxienez herri indigenen arrantza onartzen du eta).

Arrantzarako debekatutako esparruak izendatzea ez da lan erraza. Arrantzaren beraren jarduerarako onuragarria dela frogatu den tokietan oztoporik gabe sortu izan dira, baina, oro har, arrantzaleen interesak izaten ditu aurrez aurre. Abantailak epe luzekoak izaten dira eta arrantzaleen beharrak, aldiz, egunerokoak.

*“eremu batzuetan arrantzarik ez egiteak harrapakina ez dela agortuko ziurta dezake”*

Baina ez da hori arazo bakarra. Horrelako eremuei buruzko ikerketa gehiena koral-hesietan egin da, baina emaitzak ezin dira itsaso osoaren adierazgarritzat jo, bertako espezieak oso sedentarioak direlako. Ozeanotako ekosistema gehienak beste mota batekoak dira, askoz ere dinamikoagoak, alegia. Oraindik ikerketa asko egin behar da ekosistema horien antolamendua eta ezaugarriak ulertzeko. Behin eta berriz, jakinduria falta gune babestuen ideien aurka agertzen zaigu.



ARTXIBOKOA

Babestutako “itsas santutegietako” altxor handia baleak dira.



Lanperna-  
-musua.



ARTXIBOKOA

Esate baterako, planktonaren populazioak kontrolatzeko, ezinbestekoa da toki horietako batzuk ofizialki babestea. Krillaren mugimenduak eta ugaritasuna hainbat faktoreren menpekoa da eta, beraz, itsas zabalaren egoeraren markatzaile ona da.

*“herri bakoitzari  
dagozkion 200 miliako  
izendapena oztopo  
bilakatzen da guneak  
babesteko garaian”*

Itsasoko berezko beste gune-mota bat ontzien erregaien hondakinetatik babestu nahi diren eremuak dira. Eremu horiek poluitzaileekiko oso sentikorrak direlako aukeratu ohi dira. Australiako Koralezko Hesi Handia talde horretan ere sartzen da, baina beste proposamen batzuk ere kaleratzen ari dira. Esate baterako, Kubako eremu batzuk mota horren barruan babestu nahi dira. Duela urte batzuk Galapagoetarako proposamena ere plazaratu zen, baina ez zen inoiz talde horren barruan onartu.

Azkenik, itsasoko gune babestuek duten berezko zailtasun administratibo batek herri bakoitzari dagozkion 200 miliako izendapenarekin du zerikusia. Izendapen horren arabera, muga horretatik at dagoen itsas zatia sarbide askeko definitu zen. Herrietako administrazioek ez dute eremu horiek kudeatzeko baimenik.

Ezaugarri hori oso baliagarria da nazioen arteko araudiak zehazteko, baina oztopo bilakatzen da guneak babesteko garaian. Izan ere, hainbat espezie babesteko bide bakarra itsas zabaleko guneak babestea da.


BIOGRAFIA



ARTXIBOKOA

Lehorreko espezieentzat ere itsas zabala zaintzea komeni da.

Horretaz gain, planktonak eragin zuzena du kate trofikoan gaineratik dituen espezie guztiengan, elikagai unitertsala delako eta inguruaren propietate kimikoak aldatzen dituelako. Hainbat konposatu isurtzen ditu uretara nahiz atmosferara. Gainera, fitoplanktonak fotosintesia egiteko ahalmena duenez, oxigeno-mailaren gorabeheretan zerikusi handia du.



ARTXIBOKOA

*“mundua  
bost  
eskualde*

Korala biotopo sedentario baten oinarria da.

Itsasoko guneak babesteko, beraz, kontuan hartu behar dira lehorrean azaltzen ez diren ezaugarri asko. Ahalegin horrek nazioarteko legedi aproposaren beharra du eta hori lortzea oso zaila da. Baina gune handi batzuetan nolabaiteko saioak egiten ari dira, ipar ekialdeko Atlantikoaren ipar-ekialdean, adibidez. Etorkizuna argia ala latza du itsasoak? Itxaron egin behar erantzun ahal izateko. □